

POESIA. Gabriel Arestiren poema liburuaren berrargitalpena aurkeztuko du gaur, Bilbon, Susa argitaletxeak

‘Harri eta Herri’, gaur eta hemen

Bosgarren argitaraldia du liburuak, eta Koldo Izagirrek idatzitako hitzaurrea du, ‘Poeta gizon egin zenekoa’

LIBURU ENBLEMATIKOA



EGUNKARIA

Gabriel Aresti Seguro (Bilbo, 1933-1975).

Garrasi eraginkorra

Durangoko Azokan aurkeztu berri diren bi liburutan irakur daitezke Harri eta Herri-ren lehen argitalpenari buruzko aipamenak:

Pedro Alberdi: Satorrak baino lurperago liburutik (Alberdania argitaletxea):

Maiatzaren 14an, berriz, *Harri eta Herri* argitaratu zen, Itxaropena argitaletxearen *Kuliska* sortan. 972ko tiradatik, 480 harpidedunei, 80 autoreari, 29 zentsura, deposito legal eta enparauei. Zer esan obra honi buruz? Bada, ezer esatekotan, garrasi bat izan zela (*Vasconiae* eta *Quosque tandem*-en ostean, hirugarrena, oso denbora gutxian), eta hiru garrasihaiek hainbat euskalherriar –berandu izan zedin baino lehen– esnatzea lortu zutela. Kritikan, arantzarik faaltako ez bazen ere, loreak nagusitui zirela esan beharko. «Euskal literatura guztiko liburu inportantenetatik bat... Ezein euskal liburuk lortu ez zuena lortu zuen: irakurria izatea... Arestiren meritua: hizkuntza poetikoa herria-

ren hizkuntza arruntaz baliaturik eraikitzea» dio Ibon Sarasolak... Saizarbitoriak, oster, arrazoi mundutarragoak eman zituen Arestiren poesia miresteke: «Lehendabiziko aldiz gure lige kontestatarioari euskal-poesia zati bat irakur ahal izan egnion, Prevert, Otero, Apollinaire, André Breton eta Celayaren artean.

Angel Zelaieta: Gabriel Aresti. Biografia liburutik (Susa argitaletxea):

«25 bake urte» ospatzen zirenean, eta Gabriel Arestik hogeita hamaika dituela, *Harri eta Herri* ematen da argitara. Juan San Martinen esanetan, beronek lagundu zion Itxaropena etxeko-engan. Ez omen zegoen etxe bat bera ere liburu hau argitaratzeko prest. Baina, azkenez, Itxaropenako Sabin Unzurrunzaga konbentzitu zuten eta Itxaropena –«*Bilbon den kalerik mehar-murritzena*»– errealtatez jantzi zen, gerra ondoren euskal letrik ezagutu duten libururik eraginkorrena publikatuz.

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Gabriel Arestiren *Harri eta herri* poema liburuaren berrargitalpena aurkeztuko du gaur, 20:00etan, Bilboko Kalderapeko tabernan Susa argitaletxeak, Koldo Izagirre idazlearen eta Joseba Tapia musikariaren partaidetza izango duen ekitaldi baten bitartez. Izagirrek hitzaldia eta errezitaldia egingo du emanaldi horretan, eta Tapiak liburuko hainbat poemarekin egindako kantuak emango ditu zuzenean.

Bosgarren argitalpena du gaur aurkeztu dena *Harri eta Herri*-k. Lehena 1964an plazaratu zen, Itxaropena argitaldarien *Kuliska* sortan; bigarrena *Kriseluk* egin zuen, 1969an; hirugarrena *Haranburu Altunak* 1979an; laugarrena *Susak* 1986an. 1986ko argitalpen horretan, Arestiren obra osoen bilduma egiten zuten hamar tomoetako bat izan zen *Harri eta Herri*. Liburua bakarrean zein bilduma osoarekin batera izan zen salgai hasieran, baina barkarkako salmentarako aleak agortu egin ziren duela urtebete inguru. Horrenbestez –nahiz eta liburua deskatalogata ez egon–, azkeneko urtebetean *Harri eta Herri* erosteko aukera bakarra *Susak* 1986an kaleratutako hamar liburuko bilduma osoa erostea izan da.

Poesiako bilduman kaleratu du *Susak* Arestiren *Harri eta Herri*, Castillo Suarezen *Mugarri estaliak* eta Juanjo Olasagarren *Puskak biziz* argitaratu berri dituen bilduma berean. «Gaur eta hemengo irakurleentzat prestatutako edizioa da», Gorka Arrese Susa argitaletxeko koordinatzaileak azaldu digunez. «Ez da ikerketa bat, ez da edizio kritiko bat. Poema liburu garai-kide bat da, ez du orri azpiko oharrik edo azalpen akademikorik. Idazle bizien liburuekin batera argitaratu dugu, iruditzen zaigulako gure poesia moderno eta garaikidean parte hartu behar duela».

Nolanahi ere, liburuaren berri eman eta liburu bere testuinguruan kokatzeko, *Susak* Koldo Izagirrerri enkargatutako hitzaurre bat du liburuak atarian: *Poeta gizon egin zenekoa*.

Harri eta Herri-ren lehen eta bigarren edizioak ditu oinarri nagusi bosgarrenak, Aresti bizi zelarik egindakoak. «Bigarren edizioak akats gehiago ditu lehenak baino, eta lehena ere ez

JUAN SAN MARTIN

«Aresti ez zegoen ondo ikusia euskal giroan, lehenengoetako ezkertiarra izan zelako»

JOXE AZURMENDI

«Gero agertu den Euskal Herri gaztea iragartzen zuen ‘Harri eta Herri’-k, tunel amaierako argia»

JON KORTAZAR

«Hizkera literarioaren apurketa ekarri zuen Arestik, eta ideologia aldetik modernizazioa»

da prefektua», esan digu Arresek. «Beraz, zuzenketa batzuk egin ditugu, geure irizpideei jarraituz». Fotokonposizioari dagokionean ere, lehenengo bi edizioetako jarraitu du *Susak*, ia aldaketarik gabe: «Bi edizio horietan hainbat poema enblematiko, *Nire aitaren etxea* kasu, orrialde bakarrean sartzen dira osorik argitalpen horietan, apurtu gabe; gurean ere bai».

Juan San Martin, lehen hitzaurrearen egilea

Juan San Martinek idatzi zuen *Harri eta Herri*-ren lehen argitalpeneko hitzaurrea. «Askoren ustez, Aresti tipo arraroa zen», ekarri du gogora garai hura San Martinek EGUNKARIA-rentzat. «Nik Itxaropenakoei liburu argitaratzeko aholkua eman nien, eta orduan Unzurrunzagak esan zidan nik hitzaurrea egiten banuen argitaratuko zutela, bestela ez. Aresti euskal giroan ez zegoen ondo ikusia», esan digu San Martinek. «Euskaldunen arteko lehenengoetako ezkertiarra izan zen, izan ere».

«*Harri eta Herri* argitaratu baino lehen, *Maldan behera* sarritu zuten», gogoratu du San Martinek. «Iskanbila sortu zuen sari hark, baina Koldo Mitxele-nak apreziatzen zuen, ikusten zuen era berri bat zekarrela».

Martin Maria Arrizubietari eta Joxe Azurmendiri eskaini zion *Harri eta Herri* Arestik. «Arestik ni erabat harritzen ninduen, eta nik miresten nuen